

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2245

AGINDUA, 2013ko maiatzaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Arte Plastiko eta Ikusizkoen eremuan jarduerak sustatzeko eta garatzeko 2013ko ekitaldiko diru-laguntzak emateko arauak ezarri eta deialdia egiten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak ezartzen duenez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagozkio arte eta kultura mailako jardunekin eta horien hedapenarekin loturiko eginkizunak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egoki deritzo arlo pribatuak arte plastiko eta ikusizkoen eremuan sustatzen eta garatzen dituen ekintzei laguntzeko aukera emango duen bidea antolatzeari. Neurri horren bitartez, batez ere sustatu nahi dira ikerlana, artelanen ekoizpena, arte garaikidearen zabalkundea, eta euskal artisten sorkuntza-lana, bai eta haien zeregin artistikoaren errekonozimendua jasotzea ahalbideratzea ere.

Esandakoagatik guztiagatik, beharrezko iruditu zaigu tresna egokia jartzea, alde batetik, diru-laguntzak emateko prozesuan objektibotasun, konkurrentzia eta publizitate printzipioak bermatuko dituzten gutxieneko lege-oinarriak zehazteko eta, bestetik, mekanismo aproposak finkatzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diru publikoak egoki erabili diren jakin dezan. Hortaz, diseinatutako laguntza-esparrua nahikoa zabala da era horretako jarduerak zorroztasunez bete nahi dituzten pertsonak diru-laguntza hauek jaso ahal izan ditzaten. Alde horretatik, bi muga baino ez dira jartzen: aurrekontu orokorretan ekitaldi honetarako berariaz ezarritako diru-kopurua eta deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideak.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da 2013. urtean arte plastiko eta ikusizkoen arloan burutuko diren jarduerak zehatzetarako diru-laguntzak emateko baldintzak ezarri eta arautzea, ondoren datozen artikuluetan ezartzen denaren arabera.

2. artikulua.– Onuradunak.

1.– Agindu honen kargura diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte aginduan aurreikusten diren jarduerak burutzen dituzten eta agindu hau argitaratzean Euskadiko Autonomia Erkidegoan auzotasun administratiboa edo helbidea edo sozietate-egoitza duten pertsona fisiko edo juridiko-pribatuak.

2.– Ez dira lagunduko nagusiki kapital ekarpen publikoa duten entitate pribatuen eskabideak, ezta ere fundazio-ondarea edota gobernu- edo zuzendaritza-partaidetza nagusiki publikoa duten entitateen eskabideak.

3.– Ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalik dutenek, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik dutenek ere, sexu-bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren indarrez.

4.– Agindu honen bidez ematen diren laguntzak jaso ahal izateko, beharrezkoa da zerga-betebeharrak egunean izatea.

Deialdi honen organo kudeatzaileak egiaztatuko du, automatikoki, behar hainbat aldiz, diru-laguntza eskatu duten pertsonak edo entitateek zerga-betebeharrak egunean dituztela, eta horretarako ez du pertsona horien oniritzia behar, halaxe xedatzen du-eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak.

5.– Pertsona onuradunei laguntzak ematea eta, hala dagokionean, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedienteak hasi baldin bada eta oraindik izapideak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

3. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen modalitateak eta jarduerak.

1.– Sustapen-zabalkundearen modalitatea.

a) Arte garaikideko erakusketak edo gertakizunak antolatzea eta/edo beraietan parte hartzea (jaialdiak, erakusketak, lehiaketak,...), bai eta edozein euskarritan jasotako egileen gaineko dokumentazioa ere. Ekitaldiok Euskadiko Autonomia Erkidegoko arte zentroetan izango dira, eta Euskal Herrian bizi diren egileen lanak erakutsi edo zabalduko dute.

b) Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren arte garaikidearen gaineko sentsibilizazio-ekimenak (batzarrak, jardunaldiak, kongresuak, lantegiak, hitzaldiak...) eta horiei buruzko edozein euskarritan jasotako dokumentazioa.

Ez dira lagunduko ez urteko programazioak, ezta ohiko jarduntzat hartzen direnak ere. Hortaz, erakunde eskatzailearen programan edo jardueran ohiz kanpokotzat jo daitezkeen proiektu edo ekimen zehatzak jasoko dira soil-soilik.

2.– Argitalpenen modalitatea.

Euskarri desberdinak erabiliz egindako publikazioak egitea, beren xedea Euskal Herriko arte garaikidea zabaltzea eta bertako artistak eta haien lana sustatzea bada.

3.– Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea.

Arte-ekoizpenaren eremuan egiten diren jarduerak: proiektuak egitea, ardatza baldin bada arte ekoizpena edo ikerketa proiektua lantzea.

4.– Proiektu bakoitza modalitate eta modulu bakarrean aurkeztu ahalko da.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen xederako hirurehun eta hogeita hamaika mila (331.000) euro izango dira, 2013ko EAeko Aurrekontu Orokorretan horretarako jarrita dagoen aurrekontuko partidaren kargu.

Jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da honako hiru baldintza hauek kontuan izanda: eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean laguntzak emateko beste egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuan ahitu gabe geratutako dirua eta diru-laguntzak ebatzi gabe egotea. Adierazitako aldaketaren berri Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez eman beharko da.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritako diru baliabideen banaketa zehatza, hauxe izango da hurrenez hurren:

Sustapen-zabalkundearen modalitatea: 91.000 euro.

Argitalpenen modalitatea: 85.000 euro.

Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea: 155.000 euro, honako modulu eta kopuruen arabera:

a) 5.000 euroko 11 laguntza.

b) 8.000 euroko 8 laguntza.

c) 12.000 euroko 3 laguntza.

3.– Modalitate bakoitzean izendaturiko baliabideak soil-soilik arlo horietan baloratutako eskabi-deetara bideratuko dira, bertan ezarritako prozedura eta irizpideen arabera.

Hala ere, sustapen-zabalkundearen modalitatean, argitalpenen modalitatean edo sorkuntza-ekoizpenaren modalitateko moduluren batean, eskabide ezagatik, hauek betekizunak ez betetzeagatik edo, Balorazio Batzordearen iritzia arabera eskabideek behar duten kalitatea nahikoa ez izateagatik, ezarritako diru kopurua ahitzen ez den kasuan, diru hori beste modalitateari ezarri zaion kopurua handitzera pasa liteke sustapen-zabalkundearen eta argitalpenen modalitateen kasuan, edo beste edozein moduluri ezarritakoa handitzera sorkuntza-ekoizpenaren modalitatearen kasuan. Horren aipamena dagokion Balorazio Batzordeak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari aurkezten dion ebazpen-proposamenean jasoko da eta publiko egingo da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

5. artikulua.– Diru-laguntzen kudeaketarako organo eskuduna.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzen kudeaketa-zereginak betetzea.

6. artikulua.– Tramitazio elektronikoa.

1.– Pertsona eta erakunde interesdunek bide elektronikoak erabili ahal izango dituzte deialdi honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

2.– Tramitazio elektronikoa honako lege-arau hauetan araututa dago: otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua, Administrazio Elektronikoari buruzkoa eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa –Platea– ezartzen duen Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena.

3.– Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako ereduak, bai bide presentziala erabiliz bai bide elektronikoa erabiliz, nola tramitatu behar diren azaltzen dituzten argibideak euskadi.net-en honako helbide honetan daude ikusgai:

Sustapen-zabalkundearen modalitatea:

https://www.euskadi.net/dirulaguntza/-/2013/ap_zabalkundea/eu/

Argitalpenen modalitatea:

https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/-/2013/ap_argitalpenak/eu/

Sorkuntza-ekoizpen modalitatea:

https://www.euskadi.net/dirug_laguntza/-/2013/ap_ekoizpena/eu/

4.– Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiliz gero –presenztiala edo elektronikoa–, horrek ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea, halaxe jasotzen du-eta Administrazio elektroniakoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak.

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke: <https://www.euskadi.net/nirekudeaketak>

7. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2.– Eskabideak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari zuzenduko zaizkio, deialdiko modalitate bakoitzean eskatutako dokumentazioarekin batera eta behar bezala eskaera-orri normalizatua bete ondoren, Kultura Saileko dagokion lurralde zerbitzuan aurkeztu ahaliko dira zuzenean bertatik bertara edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako edozein bidetatik (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena).

Eskaera-orria, eskatzen diren formularioekin batera, euskadi.net gunean eskura daiteke, agindu honetako 6. artikuluan adierazitako helbideetan.

Eskabideak bide elektronikoa erabiliz ere aurkeztu ahaliko dira, euskadi-net guneko aipaturiko helbideetan.

3.– Pertsona eta erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dute eskaera, atxikitako dokumentazioarekin batera. Halaber, pertsona edo erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura osoan, Euskararen Erabilpena Arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duen moduan.

4.– Laguntza eskatzen duen pertsona edo erakundea erregistratu gabe badago Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan, edota Erregistroan dauden bere bankuko datuak aldatu nahi baditu, eskabidearekin batera Eusko Jaurlaritzako hirugarrenaren altari buruzko agiria, aurkeztu beharko du. Agiria www.euskadi.net gunean dago eskuragarri.

5.– Eskabideak aurkezteak deialdi honetako oinarriak definitzen dituzten baldintzak espresuki eta formalki onartu direla adierazten du.

8. artikulua.– Erantzukizunpeko adierazpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua), erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatuko dira honako betebeharrak:

– Xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatutako eta, hala badagokio, haietatik jasotako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea.

– Aurtengo eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan «minimis» arauaren mendeko laguntzarik jaso den jakinaraztea.

– Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez izatea zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik.

– Eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak konplitzen dituela adieraztea.

9. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Sustapen-zabalkundearen modalitatea:

a) Nortasun Agiri Nazionala, pasaporte edo antzeko agiriren bat, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

b) Erroldatze-ziurtagiria, agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatua dagoela egiaztatzen duena.

c) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, Sortze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia, ahalordetze agiria edo dagokion organoak egindako egiaztagiria, eta identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

d) Aurtengo eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena.

e) Hirugarrenaren altari buruzko agiria.

f) Proiektuaren laburpen fitxa.

g) Jarduera edo proiektuaren gaineko txosten zehatza, honakoak jasoko dituen:

– Proiektuaren deskribapen zehatza, helburuak azalduko dituen (zer egin nahi den), bai eta horretarako erabiliko diren ekintza zehatzak ere.

– Programa, egutegi osoa, proiektua garatzeko faseak. Proiektua 2013. urtean barruan gauzatu beharko da.

– Jarduera burutzeko aukeratutako espazioak.

– Euskararen erabilera proiektua gauzatzerakoan.

h) Pertsona eskatzailearen curriculum.

i) Proiektuaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua, aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak adieraziko dituen.

j) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste diru-laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa.

d), e), f), i) eta j) ataletan eskatutako dokumentazioa euskadi.net gunean ezarritako formularioen arabera aurkeztuko da.

f), g), h) eta i) ataletan eskatutako dokumentazioa formatu elektronikoan ere aurkeztuko da.

2.– Argitalpenen modalitatea.

a) Nortasun Agiri Nazionalea, pasaportearen edo antzeko agiriren bat, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

b) Erroldatze-ziurtagiria, agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatua dagoela egiaztatzen duena.

c) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, Sortze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia, ahalordetze agiria edo dagokion organoak egindako egiaztatzea, eta identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

d) Aurtengo eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena.

e) Hirugarrenaren altari buruzko agiria.

f) Proiektuaren laburpen fitxa.

g) Jarduera edo proiektuaren gaineko txosten zehatza, honakoak jasoko dituenak:

– Proiektuaren deskribapen zehatza, helburuak azalduko dituenak (zer egin nahi den), bai eta horretarako erabiliko diren ekintza zehatzak ere.

– Programa, egutegi osoa, proiektua garatzeko faseak. Proiektua 2013. urtean barruan gauzatu beharko da.

– Banaketa-plana, argitalpenen kasuan.

– Euskararen erabilera proiektua gauzatzerakoan.

h) Pertsona eskatzailearen curriculumak.

i) Proiektuaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua, aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak adieraziko dituenak.

j) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste diru-laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa.

d), e), f), i) eta j) ataletan eskatutako dokumentazioa euskadi.net gunean ezarritako formularioen arabera aurkeztuko da.

f), g), h) eta i) ataletan eskatutako dokumentazioa formatu elektronikoan ere aurkeztuko da.

3.– Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea.

a) Nortasun Agiri Nazionalea, pasaportearen edo antzeko agiriren bat, eskatzailea pertsona fisikoa bada.

b) Erroldatze-ziurtagiria, agindu hau argitaratzen den egunean Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatua dagoela egiaztatzen duena.

c) Eskatzailea pertsona juridikoa bada, Sortze-eskritura eta estatutuak, dagozkion erregistro publikoetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria, legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia, ahalordetze agiria edo dagokion organoak egindako egiaztatzea, eta identifikazio fiskalaren zenbakiaren txartela.

d) Aurtengo eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako minimis motako beste edozein laguntzari buruzko adierazpena.

e) Hirugarrenaren altari buruzko agiria.

f) Proiektuaren laburpen fitxa.

g) Jarduera edo proiektuaren gaineko txosten zehatza, honakoak jasoko dituen:

– Proiektuaren deskribapen zehatza, helburuak azalduko dituen (zer egin nahi den), bai eta horretarako erabiliko diren ekintza zehatzak ere.

– Lan-programa eta egutegi osoak. Proiektua 2013. urtean barruan gauzatu beharko da.

– Euskararen erabilera proiektua gauzatzerakoan.

h) Pertsona eskatzailearen curriculum.

i) Proiektuaren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu banakatua eta xehatua, aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak adieraziko dituen.

j) Proiektu berarentzat eskatu eta lortu diren beste diru-laguntzen gaineko adierazpena eta haien zenbatekoa.

d), e), f), i) eta j) ataletan eskatutako dokumentazioa euskadi.net gunean ezarritako formulazioen arabera aurkeztuko da.

f), g), h) eta i) ataletan eskatutako dokumentazioa formatu elektronikoan ere aurkeztuko da.

4.– Eskabideak aurkeztearekin batera, eskatzaileak aukera izango du baimena emateko laguntzak kudeatzen dituen organoari dokumentazioaren zati bat ofizioz eskuratu edo egiaztatu dezan, bai bide presentziala erabiltzen bada, bai bide telematikoa aukeratzen bada, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen eskumenen kalterik gabe.

5.– Aurkezten diren dokumentuek bide telematikoan nahiz presentzialean honako ezaugarriak izango dituzte:

a) Diren kasuetan jaitsi litezkeen ereduak erabiliko dira, eta, ahal dela, ereduaren formatu berean aurkeztuko dira.

b) Memoria teknikoa dokumentu bakar batean aurkeztuko da, ahal dela PDF formatuan.

c) Curriculum dokumentu bakar batean aurkeztuko da, ahal dela PDF formatuan.

d) Aurkezten den dokumentazio elektroniko guztiaren gehienezko tamaina 30 MB izango da.

e) Bideoak web lotura bidez aurkeztu ahalko dira eta lotura hori dagokion dokumentuan jarri beharko da.

10. artikulua.– Dokumentazioa ikuskatzea eta akatsak zuzentzea.

Tramitazio elektronikoan nahiz presentzialean ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumentazioan zerbait falta dela edo forma akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko. Era berean ohartaraziko zaio epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, aurrez jakinaraziko zaion ebazpen baten bidez, edo dagokion izapidea egiteko eskubidea galduko duela.

11. artikulua.— Diru-laguntzak emateko modua, beren zenbatekoa eta mugak.

1.— Sustapen-zabalkunderako agindu honen bidez emango diren diru-laguntzak lehiaketa bitartez esleituko dira. Diru-laguntzak horrela emateko, modalitatean aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, 14. artikuluan finkatutako aukeraketa eta balorazio irizpideen arabera lehentasunak ezartzeko.

Baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita esleituko dira diru-laguntzak, balorazioaren ordena eta puntuazioaren arabera, modalitate bakoitzerako jarritako aurrekontu-kreditua agortu arte.

Laguntzaren diru-kopurua honela kalkulatu da: lortutako puntuazioaren ehunekoari dagokion eskatutako kopuruaren ehunekoa. Sustapen-zabalkunderako agindu honen bidez emango diren diru-laguntzen zenbatekoa aurrekontuaren % 100era iritsi ahal da, lortutako puntuazioa hori bada, eta ez da izango 20.000 euro baino handiagoa.

2.— Agindu honen bidez argitalpenetarako emango diren diru-laguntzak lehiaketa bitartez esleituko dira. Diru-laguntzak horrela emateko modalitatean aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, 14. artikuluan finkatutako aukeraketa eta balorazio irizpideen arabera lehentasunak ezartzeko.

Esleituko den diru kopurua eskatutako kopuru bera izango da, eta ez da izango 14.000 euro baino handiagoa.

Laguntza jasotzeko modua duen azken proiektuak oso-osorik dagokiona jasotzerik ez duenean jadanik nahikoa diru-zuzkidurarik ez dagoelako, bakarrik emango zaio diru-laguntza, baldin eta, Batzordearen iritziz eman dakioken laguntzaren zati horrek proiektuaren bideragarritasuna bermatzen badu. Arrazoi horrengatik argitalpenen modalitateari ezarri zaion diru-kopuru osoa esleituko ez balitz, soberakinak sustapen-zabalkundearen modalitateari ezarritakoa handitzera pasa litezke. Horren aipamena Balorazio Batzordeak Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari aurkezten dion ebazpen-proposamenean jasoko da.

3.— Sorkuntza-ekoizpenerako agindu honen bidez emango diren diru-laguntzak lehiaketa bitartez esleituko dira. Diru-laguntzak horrela emateko, modulu bakoitzean aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, 14. artikuluan finkatutako aukeraketa eta balorazio irizpideen arabera lehentasunak ezartzeko.

Modulu bakoitzean baloraziorik altuenak lortzen dituzten eskabideetatik hasita esleituko dira diru-laguntzak, balorazioaren ordena eta puntuazioaren arabera, moduluetarako jarritako aurrekontu-kreditua agortu arte.

4.— Diru-laguntzak proiektuaren honako gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

a) Sustapen-zabalkundearen modalitatea. Atal honetan jarduerarekin harremana duten gastuak kontuan hartuko dira soilik:

– Kostu teknikoak, jarduera garatu eta ekoiztekoak.

– Jardueran parte hartzen duen pertsonal artistikoaren edota kolaboratzailearen kostuak (hizlariak, artistak, irakasleak...).

– Jarduera edo ekitaldiaren promozio, publizitate eta zabalkunde kostuak. Baita proiektuarekin harremana duen argitalpena ere.

– Antolaketa eta produkzio taldearen kostuak: gestio, koordinazio eta zuzendaritza kostuak.

– Egitura kostuak, jarduerak iraun bitartean: lokala alokatzea, kontsumoak, bestelako ohiko kostuak.

Aurrekoari lotuta honako hauek kontuan hartuko dira:

– Inbertsio kostuak kanpoan geratuko dira.

– Jardueraren gestio, koordinazio eta zuzendaritza kostuek ez dute guztizko aurrekontuaren % 25a gaindituko.

– Gestio, koordinazio, zuzendaritza eta egitura kostuek ez dute guztizko aurrekontuaren % 40a gaindituko.

– Kontuan hartuko dira soilik jarduerak sortzen dituen bidaia, ostatu eta dieta kostu espezifikoak. Honela, jardueraren ekintza zehatz bati lotua egongo dira - memoria teknikoan zehaztuko da-, ekintza gauzatzen den denboran egingo dira eta aurrekontuan adierazi eta zehaztuko dira. Inolaz ere, ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietako gastuak eta dietak.

– Eskatzailea pertsona juridikoa bada, antolaketa eta produkzio taldeari egotzi ahal zaizkion bidaia, ostatu eta dieta gastuek, aurreko puntuan zehaztutakoak betez gain, ez dute guztizko gastuen % 5a gaindituko.

b) Argitalpenak euskarri ezberdinetan. Diru-laguntzak proiektuaren honako gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

– Argitalpenak: diseinu grafikoa, materialak prestatzea, autoreen ordainsariak (kolaboratzaileak, testuen egileak,...), itzulpenak, inprimatze-edizioa, zabalkundea eta aurrekontuan zehatuko diren bestelako kostu espezifikoak.

– Web orrialdeak: diseinua eta programazioa, domeinu alta eta ostatatzea (hosting), autoreen ordainsariak (kolaboratzaileak, autoreak,...), itzulpenak, eta aurrekontuan zehatuko diren beste-lako kostu espezifikoak.

Ez dira aintzat hartuko honako kostu hauek: inbertsio kostuak, jardueraren gestio eta koordinazio gastuak, dietak, joan-etorriak eta bestelako ohiko gastuak.

c) Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea. Diru-laguntzak proiektuaren honako gastu hauek ordaintzeko erabiliko dira:

Eskatzailea pertsona fisikoa bada:

a.– Kostu zuzenak: ekoizpenerako erabilitako material eta zerbitzuak, moduluaren zenbateko osoaren % 100 arte.

– Proiektua ekoizteko material eta lanabesak.

– Proiektuarekin zuzenean loturiko joan-etorriak, ostatua eta garraioa. Gastu horiek nahitaezkoak izango dira proiektua garatu ahal izateko, beraz proiektua gauzatzeko denboran egingo dira. Horrez gain memoria teknikoan adieraziko dira eta aurrekontuan zehaztuko. Ez dira aintzat hartuko ohiko joan-etorrietako gastuak edo dietak.

– Hirugarren batzuk kontratatzea.

– Laguntza jasotzen duen proiektuak sortarazitako beste gastu espezifiko eta zuzen batzuk, inbertsiokoak kanpoan utzita.

b.– Egitura kostuak:

- Estudioa alokatzea, hala badagokio.
- Kontsumoak: argia, ura, telefonoa, Internet eta gasa.

Kostuok proiektuaren iraupenarekiko kostu proportzionalak izango dira, moduluaren zenbateko osoaren % 20 arte:

- 5.000 euroko modulua: bi hilabeteri dagozkion egitura-kostuak.
- 8.000 euroko modulua: hiru hilabeteri dagozkion egitura-kostuak.
- 12.000 euroko modulua: lau hilabete eta erdiri dagozkion egitura-kostuak.

c.– Sorkuntza-dedikazioaren oinarritzko euskarriaren kontzeptuko kostuak. Kontzeptua ulertuko da sorkuntza suspertzeari begira bideratutako proiektuaren kostu osoaren ehuneko gisa, alegia, artistaren lana alderdi sortzailearen aldetik eta euskarri transbertsal gisa laguntzeko kopurua.

Kostuok 80 euro/eguneko izango dira, moduluaren zenbateko osoaren % 60 arte.

- 5.000 euroko moduluetakoa proiektuetarako: 3.000 euro.
- 8.000 euroko moduluetakoa proiektuetarako: 4.800 euro.
- 12.000 euroko moduluetakoa proiektuetarako: 7.200 euro.

Eskatzailea pertsona juridikoa bada, ondorengo kostuak kontuan hartuko dira:

a.– Kostu zuzenak: ekoizpenerako erabilitako material eta zerbitzuak, moduluaren zenbateko osoaren % 100 arte.

- Proiektua ekoizteko material eta lanabesak.
- Proiektuarekin zuzenean loturiko joan-etorriak, ostatua eta garraioa.
- Hirugarren batzuk kontratatzea.
- Artisten ordainsariak.
- Laguntza jasotzen duen proiektuak sortarazitako beste gastu espezifiko eta zuzen batzuk, inbertsiokoak kanpoan utzita.

b.– Egitura gastuak:

- Estudioa alokatzea, hala badagokio.
- Kontsumoak: argia, ura, telefonoa, Internet eta gasa.
- Beste gastu ohiko batzuk.
- Langileen nominak.

Kostuok proiektuaren iraupenarekiko kostu proportzionalak izango dira, moduluaren zenbateko osoaren % 30 arte:

- 5.000 euroko modulua: bi hilabeteri dagozkion egitura-kostuak.
- 8.000 euroko modulua: hiru hilabeteri dagozkion egitura-kostuak.

– 12.000 euroko modulua: lau hilabete eta erdiri dagozkion egitura-kostuak.

Kasu bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa sorkuntza-ekoizpenaren modalitatean finkatuta dauden artean eskatzaileak eskatu duenaren adinakoa izango da.

5.– Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatean ezin zaio eman pertsona edo entitate eskatzaile berberari diru-laguntza bat baino gehiago, eta Sustapen-zabalkundearen eta Argitalpenen modalitatean bi baino gehiago. Guztira hiru modalitatetan gehienez bi diru-laguntza eman ahalko zaizkio pertsona edo entitate bakoitzari.

12. artikulua.– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honen kargura emango diren diru-laguntzak eta helburu berberaz beste erakunde batzuek emandakoak bateragarriak izango dira, betiere gainfinantzaketarik ez badago. Hori gertatuz gero, edo emandako diru-laguntza ordaindu ez edo gehiegizko finantzaketa sortu duen diru hori itzuli beharra izango da.

2.– Halere deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak proiektu bera egiteko edo helburu berarekin emandako diru-laguntzekin «Sormen lantegiak» programako diru-laguntzak arautzen duen Aginduaren babesean.

3.– Proiektuak ez daudela zatituta egiaztatuko da. Honela, aurreko atalean esandako ez-bateragarritasuna saihesteko asmoz proiektua zatitu, zabaldu edo moldatu egin dela egiaztatzen bada, Balorazio Batzordeak ez du proiektua baloratuko eta deialditik kanpo utziko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

13. artikulua.– Diruz lagundutako jardueraren exekuzio-epea.

Deialdi honetan diruz laguntzen diren jarduerak 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi eta abenduaren 31ra baino lehen bukatu behar dira.

Epe hori baino iraupen luzeagoa duten jarduerak diruz laguntzeko aukera ere izango da, ekitaldi honi dagokion partean. Horretarako, eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuak jarduerarako aurreikusitako guztirako gastuak eta diru-sarrerak adierazi beharko ditu, barne hartzen duen ekitaldi bakoitzerako desglosea ere agertu beharko duela.

14. artikulua.– Eskakerak aukeratzeko eta baloratzeko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko eta bakoitzaren diru-kopurua finkatzeko, honako irizpide hauek batera betetzea baloratuko da, betiere agindu honek bere 11. artikuluan ezarritako muga barruan:

1.– Sustapen-zabalkundearen eta argitalpenen modalitateak.

a) Garatuko den jarduerak dituen elementuen interesa eta kalitatea (guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 90 arte). Irizpide honetarako alde hauek izango dira kontuan:

– Ekimenak arte eta kultura aldetik duen garrantzia, interes maila eta bere garapenean duen koherentzia (guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 35 arte).

– Arte garaikidearen zabalkundearen ekimenak duen eragin kulturala, sormen garaikidearekiko herritarren sentsibilizazioan duen ekarpena edota pertsona eskatzaileentzat jarduerak duen sustapen-interesa (guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 15 arte).

– Pertsona fisiko edo juridikoak laguntza eskatzen duen jardueran izan duen ibilbide profesionala (guztira lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 30 arte).

– Emakumearen parte-hartze profesionalaren sustapena (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 10 arte).

b) Proiektuan euskarak duen presentzia (gehienezko puntuazio orokorraren % 10).

Irizpide hau ez zaie aplikatuko hizkuntzarik ez duten proiektuei. Kasu horietan, hemen aurreikusitako ehunekoa a) atalean zehaztutakoari gehitu egingo zaio.

2.– Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea:

a) Garatuko den jarduerak dituen elementuen interesa eta kalitatea (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 90 arte). Irizpide honetarako alde hauek izango dira kontuan:

– Proiektuak duen garrantzia, interes maila eta bere garapenean duen koherentzia (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 40 arte).

– Ekimenak berrikuntzarako duen ekarpena sorkuntza artistikoaren arloan (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 10 arte).

– Pertsona fisiko edo juridikoak laguntza eskatzen duen jardueran izan duen ibilbide profesionala (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 30 arte).

– Emakumearen parte-hartze profesionalaren sustapena (guztira lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 10 arte).

b) Proiektuan euskarak duen presentzia (gehienezko puntuazio orokorraren % 10).

Irizpide hau ez zaie aplikatuko hizkuntzarik ez duten proiektuei. Kasu horietan, hemen aurreikusitako ehunekoa a) atalean zehaztutakoari gehitu egingo zaio

3.– Diru-laguntza eskatzen duten proiektu eta jardueren artean, lor daitekeen puntuazioaren erdia (% 50) edo gehiago lortzen dutenak gutxieneko kalitate eta bideragarritasuna dutenak direla joko da. Beraz, modalitate bakoitzean ezarritako balorazio-baremoaren % 50 lortzen ez duten proiektuak baztertu egingo dira, eta ezingo dira sartu aukeratutakoen artean.

15. artikulua.– Balorazio Batzordeak.

1.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, bi batzorde osatuko dira, bata sustapen-zabalkunde eta argitalpenetarako eta bestea sorkuntza-ekoizpenerako.

2.– Balorazio batzordeetako kideak honako hauek izango dira:

– Lehendakaria: Kultura Sustatzeko zuzendaria edo eskuordetzen duen pertsona.

– Bokalak: Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak agindu honen gaian adituak diren gizon-emakumeen artetik izendatutako 3tik 5era arteko bokal.

– Idazkaria: Batzordearen idazkari-lanak Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari batek egingo ditu, bertako zuzendariak izendatua izango da eta bileretan hitzez bai baina botorik gabe jardungo du.

3.– Balorazio batzordeetako kideak izendatzerakoan Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko Legearen 3.7 artikuluan xedatutakoa beteko da.

4.– Balorazio Batzordearen osaera EHAAn argitaratuko da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen bidez.

5.– Nolanahi ere, errespetatu egingo da azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan parte ez hartzeari eta errefusatzeari buruz ezarritakoa.

16. artikulua.– Eskaerak aztertzea eta ebazpen-proposamena.

1.– Balorazio Batzordeen zeregina izango da aurkeztutako eskaerak ebaluatzea eta dagokion ebazpen-proposamenak onartzea eta aurkeztea Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari.

2.– Ebazpen-proposamenetan propio jaso beharko dira pertsona edo entitate eskatzailearen izena eta xedea, eta diru-laguntza ematearen aldekoa den kasuetan, diru-kopurua, ordaintzeko modu eta epeak eta ordainketa justifikatzeko modua ere.

3.– Balorazio Batzordeek bat ere proiekturik ez onartzeko proposamena egin dezakete, bai eta aurreikusitako diru-zuzkidura guztia ez agortzekoa ere, baldin ondorioztatzen badute aurkeztutako eskaeren kalitatea ez dela nahikoa edota beste baldintzaren bat ez dutela bete.

17. artikulua.– Ebazpena.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari dagokio eskaeren gaineko ebazpenak hartzea, Balorazio Batzordeek modalitate bakoitzeko aurkeztutako ebazpen-proposamenak aztertuta. Ebazpena hartzen duen organoak behar bezala arrazoituko du, Ebazpena eta proposamena bat ez badatoz.

Ebazpena eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita bost hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko da. Epe hori jakinarazpenik gabe igarotzen bada, eskaerak ez direla onartu ulertuko da, 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Diru-laguntzen eskatzaileei agindu honetan aurreikusitako laguntzen esleipen-ebazpenaren jakinarazpen indibiduala egiteaz gainera, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu egingo da, denek horren berri izan dezaten.

Modalitate bakoitzean ematen den ebazpenak ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, haren aurka gorako errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera kontatuta, horrela dago-eta xedatuta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan.

18. artikulua.– Jakinarazpenak izapidetze presentzian eta telematikoan.

1.– Izapideak bertaratuta eginez gero, jakinarazpena egindakotzat joko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan xedatutakoaren arabera, eta kasu bakoitzean ezarritako epea jakinarazpeneko egintza jaso eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

2.– Izapidetze telematikoaren kasuan, aldiz, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30.2 artikuluan xedaturikoari jarraiki, jakinarazpena egindakotzat joko da pertsona interesdunak edo, kasuan kasu, legezko ordezkariak edo baimenduriko pertsonak jaso duela elektronikoki sinatzen duenean, eta kasu bakoitzean ezarritako epea hark jakinarazpeneko egintza jaso izana elektronikoki sinatzearen biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Interesdunaren edo haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren esku jartzen denetik hamar egun naturaleko epea igaro eta gero, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsizat joko da. Horrela, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

19. artikulua.– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan ezarritakoaren arabera araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Onuradunek hamabost eguneko epean, Ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, ez badiote diru-laguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartua izan dela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskatuko dizkion agiri guztiak haren eskura jartzea, diruz lagundutako proiektuak egoki gauzatzen direla bermatzeko egokitzat joko dituen ikuskapenak egiteko.

d) Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, eskatuz gero.

20. artikulua.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa.

Agindu honetako diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonak edo entitateek konpromisoa hartuko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa berariaz eta argi aipatzeko, diruz lagundutako jardura dela-eta diru-laguntza jaso dutela jakinarazten dien ebazpena jasotzen dutenetik aurrera egiten dituzten katalogo, programa, iragarki-kartel eta argazkietan eta argitaratzen dituzten gainerako material grafiko zein soinudunetan.

21. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Agindu honen kargura emandako diru-laguntzen ordainketa bi zatitan egingo da, prozedura honi jarraituz:

a) Emandako diru-laguntzaren % 75, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak emandako Ebazpenaren jakinarazpena jaso denetik.

b) Gainerako kopuruaren ordainketa 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera eta 22. artikuluaaren arabera diru-laguntza justifikatzeko eta likidatzeko eskatutako agiriak aurkeztu ondoren.

22. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa.

Agindu honetan ezarritako diru-laguntzen onuradunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, lagundutako jardura amaitu eta bi hilabeteko epearen barruan eta betiere 2014ko otsailaren 28a baino lehen:

1.– Sustapen-zabalkundearen modalitatean:

a) Burututako jardueraren memoria zehatza: garapena eta ebaluazioa.

b) Egindako jardueren kostuari buruzko txosten ekonomiko justifikatzailea, honakoak adierazita:

– Diruz lagunduriko jardura gauzatzeko izan diren diru-sarrera eta gastuen balantzea, eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

– Jardueraren gastuei buruzko zerrenda sailkatua, euskadi.net gunean ezarritako formularioaren arabera.

– Guztirako gastuak justifikatzeko fakturak.

Diru-sarrera eta gastuen balantzean ez da ontzat emango gastu ataletan aurrekontuarekiko alde nabarmenik, ondo arrazoitutako kasuetan ez bada behintzat. Nolanahi ere ez da onartuko 11. artikuluan ezarritako muga gainetik gastuak gehitzea, gestio, koordinazio, zuzendaritza edo antzekoetan, ez eta egitura, bidaia, ostatu eta dieta gastuetan ere.

Salbuespenez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako finantzaketak ez badu gainditzen aurkeztutako gastuen % 50, gastu eta diru-sarreraren balantzeari buruzko zinpeko adierazpenarekin batera aurkeztu ahal izango dira emandako diru-laguntzaren kopuruari dagozkion egiaztagiria. Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak hala eskatzen duenean, pertsona onuradunek bere gain hartuko dute aurkezturiko aurrekontuaren arabera guztirako diru-zenbateko osatzeko falta diren egiaztagiria Zuzendaritzaren esku jartzeko konpromisoa.

c) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzen zerrenda.

d) Diruz lagunduriko jardura dela-eta sortutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuuzkoaren ale bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita agertzen delarik.

2.– Argitalpenen modalitatea:

a) Burututako jardueraren memoria zehatza: garapena eta ebaluazioa.

b) Egindako jardueren kostuari buruzko txosten ekonomiko justifikatzailea, honakoak adierazita:

– Diruz lagunduriko jardura gauzatzeko izan diren diru-sarrera eta gastuen balantzea, eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

– Jardueraren gastuei buruzko zerrenda sailkatua, euskadi.net gunean ezarritako formularioaren arabera.

– Guztirako gastuak justifikatzeko fakturak.

Salbuespenez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako finantzaketak ez badu gainditzen aurkeztutako gastuen % 50, gastu eta diru-sarreraren balantzeari buruzko zinpeko adierazpenarekin batera aurkeztu ahal izango dira emandako diru-laguntzaren kopuruari dagozkion egiaztagiria. Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak hala eskatzen duenean, pertsona onuradunek bere gain hartuko dute aurkezturiko aurrekontuaren arabera guztirako diru-zenbateko osatzeko falta diren egiaztagiria Zuzendaritzaren esku jartzeko konpromisoa.

c) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzen zerrenda.

d) Diruz lagunduriko jardura dela-eta sortutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuuzkoaren ale bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita agertzen delarik.

3.– Sorkuntza-ekoizpenaren modalitatea:

a) Burututako jardueraren memoria zehatza: garapena eta ebaluazioa.

b) Egindako jardueren kostuari buruzko txosten ekonomiko justifikatzailea, honakoak adierazita:

– Diruz lagunduriko jardura gauzatzeko izan diren diru-sarrera eta gastuen balantzea, eskabidearekin batera aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

– Jardueraren gastuei buruzko zerrenda sailkatua, euskadi.net gunean ezarritako formularioaren arabera.

– Proiektuko gastu guztiak justifikatzeko fakturak.

– Sorkuntza-dedikazioaren oinarrizko euskarriaren kontzeptuari egozteko moduko gasturik badago, kontzeptu horretan proiektuan erabilitako egun-kopurua egiaztatuko duen erantzukizunpeko adierazpena.

Salbuespenez, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kargurako finantzaketak ez badu gainditzen aurkeztutako gastuen % 50, gastu eta diru-sarreraren balantzeari buruzko zinpeko adierazpenarekin batera aurkeztu ahal izango dira emandako diru-laguntzaren kopuruari dagozkion egiaztagiria. Hala ere, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak hala eskatzen duenean, pertsona onuradunek bere gain hartuko dute aurkezturiko aurrekontuaren arabera guztirako diru-zenbateko osatzeko falta diren egiaztagiria Zuzendaritzaren esku jartzeko konpromisoa.

c) Eskabidea aurkeztu ondoren helburu berbererako emandako bestelako diru-laguntzen zerrenda.

d) Diruz lagunduriko jarduera dela-eta sortutako katalogo, programa, iragarki-kartel, argazki eta gainontzeko material grafiko edo soinuzkoaren ale bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren babesa espresuki adierazita agertzen delarik.

4.– Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako agiriak aztertu ondoren, dena delako zioarengatik, bigarren ordainketa gutxitu edo erabat deuseztatuko balitz, eta, hala badagokio, jasotako dirua osorik edo zatiren bat Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra izanez gero, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak banakako likidazioaren Ebazpena emango du.

23. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Hauek izango dira ez-betetzeak:

a) Emandako diru-laguntza guztia edo zati bat agindu honetan aurreikusitako jardueretan ez, besteren batean erabili denean.

b) Agindu honek ezartzen dituen obligazioak bete ez direnean.

c) Diru-laguntzaren Likidazio-Ebazpenean adierazitako zenbatekoa, hala badagokio, horretarako ezarri den epearen barruan itzultzen ez bada.

d) Beste xedapenen batek izaera orokorrean ezarritako beste edozein obligazio betetzen ez denean.

2.– Ez betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, betiere azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera (hurrenez hurren, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzei buruzko erregimen orokorra arautu, eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua).

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— Laguntza-programa honek ez du Europako Batzordearen baimena behar, hone-laxe xedatuta dago-eta Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 araudian (araudi hori Tratatu 87. eta 88. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da). Izan ere, enpresa jakin bati emandako laguntza osoa ezin da 200.000 eurotik gorakoa izan edozein alditako hiru ekitaldi fiskaletan. Horren ondorioz, aurtengo eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jaso diren minimis motako diru-laguntzei buruzko adierazpena aurkeztu beharko da.

Bigarrena.— Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraituz, eskatzaileek emandako datuak eta eskabideetan agertzen direnak Eusko Jaurlaritzaren Ayudas y subven. Creación cultural izeneko fitxategian sartuko dira. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritza da fitxategi horren titularra eta 2006ko uztailaren 27ko Aginduan araututa dago. Fitxategiak laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari eman zaio horren berri, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita ditu. Fitxategiaren datuak, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauak jarraiki, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez baliatu ahalko da eskatzailea, horretarako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz (Donostia kalea 1; 01010 Vitoria-Gasteiz).

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesatuek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari hilabeteko epean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, edota Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko dagokion Aretoan bi hilabeteko epean, hau ere argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Bigarrena.— Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 2a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.